Wikipedia elikatzeaz gain, hitzarmen honek aukera emanen du NUPen Irakaskuntza Berritzeko Proiektu (PINNE) bat abiarazteko. Imanol Nuñez Hizkuntza Plangintzarako Zuzendariak koordinatzen du ekimena eta berak azaldu digu zertan datzan elkarlan hau: “Euskarazko Wikilariak elkarte Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin harremanetan jarri zen beste euskal unibertsitate batzuetan antzeko programekin izandako esperientzia arakastatsuan oinarritutako proiektu bat proposatzeko. Euskaraz ikasten duten ikasleek material propioak garatzea da proiektuaren helburua, gero euskarazko Wikipedian, irakaslearen gainbegirapenarekin, eransteko. Wikipedia euskarazko webgune bisitatuena da. Proiektuaren helburua bikoitza da, alde batetik, webgunea euskarazko eduki originalekin aberastea eta, bestetik, hezkuntza berrikuntza sustatzea, ikasleak ikasgelatik dokumentu akademiko eta zientifikoak sortzera bultzatuz. Proiektu hau NUPen hezkuntza berritzatzeko deialdi-tako bat da, eta, horri esker, emaitzak trazarriak eta ebaluarriak dira.”

Ikasleen curriculuma aberastea

Euskal Wikilarien Elkarteak Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan dihardu

antzeko proiektu batean. Adierazi dutenez, ikasleen ekarpenek konpromiso handia erakusten dute testuen kalitatearekin, eta wikilariak beren izenarekin egiten dituzte ekarpenak. “Horrek aukera ematen

du haien curriculuma aberasteko, jarduera horren bidez beren ekimen- eta sormen-gaitasunak erakusten baitituzte”, erantsi du Hizkuntza Plangintzarako zuzendariak.

Irakasleen harrera ona

NUPeko irakasle euskaldunen erantzuna oso positiboa izan dela nabarmendu du Imanol Nuñezek: “Atsegin handiz harritu gintuen irakasleen erantzunak, 25 irakasleek parte hartu nahi zutela adierazi baitzuten. Gure ekimenak Unibertsitateko jakintzar-aro ia guztiak hartzen ditu, eta bereziki nabarmentzen da humanitate eta gizarte-zientzien fakultatean, non euskarazko irakaskaien eskaintza zabalagoa dagoen. Lehenengo fasean, elkarteak irakasleei azalduko die nola igo edukiak webgunera, kalitatea eta zehaztasuna ziurtatuz, erreferentziak behar bezala erabiliz eta egi-leak Wikipedian aipatuz. Bigarren fasean, ikastaro espezifikoetako ikasleak eduki horiek sortzen hasiko dira, eta gero Wikipedia euskaraz garatzeko erabiliko dira.”



Inmaculada Farran Blanch
Irakaskuntzako errektoreordeak eta
Anabel Arraiza Euskal Wikilarien
Elkartearen ordezkariak sinatu dute
hitzarmena.

PROFESORADO Y ALUMNADO DE LA UPNA PARTICIPAN EN UN PROYECTO PARA ALIMENTAR LA WIKIPEDIA EN EUSKERA

La Universidad Pública de Navarra (UPNA) y la Asociación Cultural de Wikipedistas Vascos han firmado un convenio de colaboración cuyo fin es el de alimentar la Wikipedia en euskera. En virtud del acuerdo, la UPNA se compromete a fomentar la participación

del profesorado en este proyecto, y éste, a su vez, colaborará con el alumnado en la producción de textos de calidad en este idioma. Por su parte, la citada asociación prestará apoyo técnico y asesoramiento. Las sesiones de formación comenzarán con el inicio del nuevo curso.



**EROSI ETA SALDU
BURUHAUSTERIK GABE**

www.kabaiainmo.com
Tel. 624 124 363
info@kabaiainmo.com

**KONFIDANTZAZKO
ZERBITZU EUSKALDUNA**



Asesoramiento
inmobiliario

KABIA

Higiezin
aholkularitza

ITSASO BAKEDANO MORENO / SEXÓLOGA

“Uno de mis sueños era ser sexóloga y trabajar en euskera”

Itsaso Bakedano tiene su consulta en Barañáin, pero como dice ella es un poco “nómada”. Da cursos y charlas sobre educación sexual y ofrece asesoramiento en numerosos centros de enseñanza, centros públicos y asociaciones, la mayor parte de las veces en euskera. Una joven emprendedora que el 2 de octubre recibirá el galardón a la Mejor profesional en educación y formación en lo premios al Trabajo Autónomo Navarra 2024.



- Ze Berri?: ¿Qué es exactamente lo que haces?

- Itsaso Bakedano: Además de atender a las personas que vienen a mi consulta, en la Avenida Comercial de Barañáin, acudo a centros escolares y hago sesiones con alumnado, familias y profesionales. También realizo formación y asesoramiento para diferentes entidades locales, instituciones y otros colectivos. Trabajo sobre todo en Navarra, pero también en Álava, donde colaboro con el centro sexológico Emaize, y en Gipuzkoa, como educadora de la asociación Hezten Aisialdi Euskaltzalea.

Trabajo con personas de todas las edades. Ahora, por ejemplo, tenemos un proyecto en Baztan y Malerreka para empezar a trabajar temas de sexualidad con personas de la tercera edad.

-ZB: ¿Cuál es tu labor en los centros escolares?

- I.B.: Es fundamentalmente ayudar a resolver dudas en torno al cuerpo, los sentidos, los deseos, los placeres y contribuir al conocimiento de las personas como seres sexuados que somos. Tratamos de trabajar en las aulas aquellos conocimientos que en muchas familias no se transmiten, sobre todo por los tabúes que tenemos como sociedad. Se trabajan aspectos de autoestima, emocionales o cómo empoderarnos para tener relaciones más igualitarias y respetuosas.

Es cierto que a veces acudo a los centros en función de bombera, como digo yo. Esto es, cuando hay un caso que no saben muy bien

EUSKALDUNOK ETA HARREMANAK

“Euskaldunok badakigu ligatzen, baina egiten dugu gure artean, lagun lagunekin gehienetan. Nik esango nuke irekiak garela, izan ere, estatu mailako sexologia masterreko hainbat promoziotan ehuneko handi bat euskal herriko parte-hartzaileak izan dira. Mito asko dago. Nik uste dut kantitatean antzeko ligatzen

dugula, baina gure estrategiak desberdinak direla. Eta erritmoak ere bai: telefonoa eman, itxoin idatzi arte... ea hurrengo auzoko jaietan edo sanferminetan topatzen dudana... Lagunartean gauza bera gertatzen da. Koadrilak ez dira egun batetik bestera osatzen, baina behin lagun eginez gero, betirako da.”

cómo tratar, como puede ser por ejemplo un caso de transexualidad. Está bien acudir como auxilio en estos casos, pero lo ideal sería tener una educación sexual desde infantil hasta bachiller o formación profesional. A día de hoy todavía no hay ningún centro escolar en Navarra que tenga en todos los cursos sesiones de educación sexual.

-ZB: ¿Estamos dejando la educación sexual en manos de internet?

- I.B.: No es que las chicas y chicos busquen información prioritariamente en internet, sino que es ahí a donde llegan buscando respuestas. Si se diera una buena educación sexual en las familias y en los centros por lo menos tendrían un sentido crítico de lo que están viendo o de lo que le están contando. Y eso se ve muy claro en el porno.

-ZB: ¿Por qué no hablamos en las familias de estos temas?

- I.B.: No hablamos porque la educación sexual de quienes ahora somos personas adultas fue prácticamente nula. Desde nuestro propio analfabetismo en estos temas ¿cómo vamos a transmitir a nuestras criaturas una buena educación? Creo que en este sentido está dándose un cambio importante.

-ZB: Este año has recibido el certificado Bai euskarari en Barañáin por tu trabajo en euskera. Contenta, imagino...

- I.B.: Sí, muy contenta. Uno de mis sueños era ser sexóloga y trabajar en euskera. El 90% de los servicios que hago tanto en consulta como en charlas y formaciones es en euskera y me encanta. Mi web es .eus, porque yo me quiero identificar con el sector euskaldun de la población. Quiero trabajar con este público.



LEHIAKETA / CONCURSO

En este número hacemos referencia a un valle del norte de la Comarca de Pamplona formado por ocho concejos y cuatro lugares habitados y atravesado por el río Ultzama.

La respuesta al concurso del número 166 era:

ETXABAKOITZ

La ganadora es:
Rosa Hernández Baigorri (Atrrabria) ZORIONAK!



MIKEL BELASKO

Etxabakoitz

Los topónimos, los nombres de lugar, nos muestran cómo veían el paisaje quienes lo bautizaron en un momento impreciso de la historia que, en el caso de lugares habitados en Navarra, suele remontarse a más de mil años.

Etxabakoitz se escribió por primera vez en 1196 como Essabacoiz, y lo que hace mil años generó este nombre fue el hecho de que existía una única y solitaria (bakoitz) casa (etxe) en aquellos parajes. Luego llegó una iglesia, tres casas habitadas en 1350, que eran dos en 1366, hasta quedar poco después completamente deshabitado.

En muchos casos la toponimia se fija en elementos casi inmutables de la naturaleza, lo que hace que su significado sea siempre visible. Aizkorbe, en Arakil, siempre estará bajo unas rocas de color rojizo. Este tipo de topónimos que describen su entorno geológico son los que han servido de base al investigador de Andorra Xavier Planas Batlle para detectar toda una serie de topónimos a lo largo del Pirineo entre Andorra y el valle de Roncal en los que una misma estructura geológica presenta denominaciones análogas que podrían explicarse por medio del euskera.

En otros casos la toponimia recoge elementos sobre los que el ser humano puede actuar, y el significado original corre el riesgo de perder su sentido. Es el caso de Etxabakoitz, donde la casa solitaria se ha convertido hoy en un populoso barrio de Pamplona.



Además, en mil años la lengua cambia, y hoy en día nadie crearía un topónimo como Etxabakoitz, ya que, seguramente, utilizaríamos una forma como *Etxebakar*, porque la palabra *bakoitz* se ha ido especializando en el significado de “cada” y perdiendo ese sentido original de “único”. Una vez más la toponimia nos enseña como si fuera un vídeo qué había en un determinado lugar hace cientos de años y en qué lengua hablaban quienes vieron aquel paisaje. También nos recuerda que la propia lengua, el euskera en este caso, evoluciona. El uso de *bakoitz* “única” pervivió más en los dialectos más orientales, pero fue común en toda Navarra como nos lo muestra la toponimia. Así lo vemos en la existencia de otras casas solitarias (*Etxabakoitz*) en Ibargoiti, Leoz y en Puente la Reina; y en las encinas solitarias de *Artabakoitz* en Ujué y Oteiza.



Ezagutzen duzu toki hau? • ¿De qué lugar hablamos?

Moztu kupoi hau, bete eta postaz bidali edo zeberrri.eus web gunean dagoen galdetegia bete eta bidali urriaren 8 baino lehen. Recorta este cupón y envíalo por correo o rellena el formulario de la página web www.zeberri.eus antes del día 8 de octubre.

Concurso ¿De qué lugar hablamos?
Concejo de Ustárroz, 9-11 (trasera) 31016 • Pamplona / Iruña


Erantzuna / Respuesta:

Izen-abizenak • Nombre y apellidos

Herria • Población

Telefonoa • Teléfono

Saria: Bi pertsonentzako asteburuko egonaldia • El premio es un fin de semana para dos personas en el Hostal Itzalgikoborda.



Elizondoko plazatik 2 kilometro gaude, zuhaitzez eta erreka batez inguratuak, uraren gurguria ere entzun daitekeen toki paregabea. Hauxe da Itzalgikoborda, hostel bat asteburu lasaiaz gozatzeko edota otordu bat egin eta gero patxada ederrean mahaiaren iguruan egoteko. A dos kilómetros de Elizondo, rodeados de árboles y de una regata desde la que nos llega el murmullo del agua. Itzalgikoborda, un hostel donde disfrutar de un tranquilo fin de semana o de una comida con una agradable sobremesa.

Itzalgikoborda

B^o Berto.
31700 Elizondo/Navarra-Nafarroa
948581483
630454519
www.itzalgikoborda.com

El responsable del tratamiento de sus datos es HEDA Comunicación S.L., que tratará los datos incluidos en este cupón con la finalidad de realizar el sorteo. Usted tiene derecho al acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento de los datos y a presentar una reclamación ante la autoridad de control. Más información en www.aepd.es/reglamento/derechos/index.html

BIDEZ BIDE • POR EL CAMINO DEL EUSKARA**LABURRAK • BREVES****13**

ENRIQUE DIEZ DE ULZURRUN SAGALÀ

Testimonios en euskera en torno a las almadías

Han transcurrido más de setenta años desde que las últimas almadías surcaron las aguas de los ríos Eska y Salazar camino de la Ribera, Zaragoza y hasta de Tortosa. Oficio desaparecido a principios de la segunda mitad del siglo XX y que ahora ha vuelto a la actualidad gracias al trabajo publicado por el investigador Koldo Artola en la revista 'Fontes Linguae Vasconum'. Se trata de la transcripción de textos extraídos de las grabaciones en torno a las almadías que el propio Artola realizó en euskera hace unas décadas a gentes de habla vasca de los valles de Salazar y Roncal. Y además de los textos se puede escuchar la voz de las personas que aportaron sus testimonios, todas fallecidas hace tiempo. Entre ellas figuran Dionisia Garate, Lucas Semberoiz, Nicolas Elarre y Fernando Rekalde, de Esparza/Esparza; Pedro Pena y Severo Azkoiti, de Oronz/Orontze; Carmelo Krutxaga y Javier Krutxaga, de Jaurrieta; Gregoria Mikeleiz y Sinforiana Narvaiz, de Ezcároz/Ezkaroze; Isidora Paskualena, Liboria Contin, Sebastiana Eseberri y Josefa Zoko, de Otsagabia; y las roncalesas Antonia Anaut, de Isaba/Izaba, y Fidela Bernat, de Uztároz/Uztarroze.

Dionisia resumió de esta forma la traída de troncos del monte a la orilla del río para hacer las almadías: "*Lerrak abreekin, mandoekin, ekarri, eta almediak kan prestatzen zixien, ugalde bazterrean egiten zixien, eta gero, ugaldea handitzen zelarik, orduan egotz eta hala! fan geinbehera!*".



En el recorrido aguas abajo del Salazar había un punto crítico, muy peligroso, que ha quedado grabado en la memoria de los almadieros: la Foz de Arbaiun. Lucas Semberoiz lo recordaba perfectamente: "*Arbaiun da anitz gaixto, ur gutxiarekin etzaiken sar, anitzekin ere ez... pasu batzuk meak ta eztaike brinka!... Nik, izaundu tut han bizpahirur itotzen*". Aspecto reseñado también por Liboria Contin: "*Arbaioneko... puzualartio anitz ongi, baia kan anitz... beldur! Anitz hiltzen zen, itotzen zen anitz. Erraten tzien, gizonek, sartzeko Arbaiunen, egin bihar ziela 'acto de contrición'; baitzien beldur, zer pasatren (pasatuko) zen. Kaiek hortzez egiten zitela beren orazioak, fateko ongi*". El almadiero Pedro Pena también fue testigo de un accidente: "*Gizona ezpaitzen elkitzen laur edo... borz egunez, errekek eramank; ta... behin bat elki zen kolaxe, burua edekirik*".

Hay un montón de cosas interesantes que se derivan de estos testimonios en lengua vasca, como que en Salazar al Valle de Roncal le decían "Kallesia" y a los y las roncalesas "kallesak" ("*Kalles balletik almadia yago xausten zen ezik kemendik*"; "*Kallesian bai; kor almediatzen zen oaño...*"), y a Liédena "Ledia".

Oficio duro y no muy rentable a juzgar por los testimonios recogidos: "Almadiero txikilindrero, bolsa grande y poco dinero", corroborado por Fidela Bernat, ya que aquellos hombres volvían al pueblo con cuatro pesetas y no tenían ni para un vaso de vino: "*Zaragozaraino, eta gizonak lau pezetareki bueltatu Uztarrozera, baso batentako ezta kori ré*".

AhoTTS eta Organic Maps-ekin, mapa jarraibideak euskaraz entzun ditzakezu. Organic Maps mapen aplikazio bat da, auzolanean sortutako OpenStreetMap datuetan oinarrituta. Ezaugarri nagusizat du konexiorik gabe %100ean funtzionatzen duen aplikazio gutxiarik bat dela. Android eta iOS-erako bertsioak daude, baina Androiden abantaila gehigarri bat du: ibilbide bat programatu eta errepedeko (autoz) edo bestelako bideetarako (bizikletan edo oinez) jarraibideak euskaraz esan ditzake, AhoTTS aplikazioa ezarri gero. AhoTTS da euskarazko ahots bihurtzailea, EHUko Aholab ikerketa taldeak garatua. Androiden instalatu ondoren, mugikorreko ezarpenetara eta urrats hauek jarraitu behar dira: Android ezarpenak > Ezarpen osagarriak (edo Sistema) > Hizkuntza eta idazketa > (aukera gehigarrietan) Testua-Hizketara outputa (edo Testua ahots bihurtzeko eginbidea) > Motor hobetsia klikatu (erne, hor eta ez ezkerreko engranaje) eta bertan AhoTTS aukeratu.

(Informazio iturria: Sustatu.eus)

Bost nafar euskaltzain urgazle izendatu dituzte.

Euskaltzaindik bost nafar izendatu zituen euskaltzain urgazle maiatzaren 31n Baionan eginiko bilkuran: Patri Arburua (Igantzi, 1972), Fermin Erbiti (Iruñea, 1964), eta Ekaitz Santazilia (Iruñea, 1987). Haiekin batera Patxi Zubizarreta (Ordizia, 1964), Katixa Agirre (Gasteiz, 1981), Miren Basurto (Segura, 1968) eta Miel A. Elustondo (Azpeitia, 1958) ere izendatu zituen.

Joseba Esparzak irabazi du Iruña Hiria Nazioarteko XVIII. Poesia Saria euskaraz.

Iruñeko Udalak Nafar Ateneoarekin elkarlanean antolatutako Iruña Hiria Nazioarteko XVIII. Poesia Sarien irabazleak ezagutu dira dagoeneko. Joseba Esparza Gorraizek irabazi du euskarazko saria 'Ttau eta biok' lanarekin. Saritutako egileen olerki-bildumak argitaratu egingen dira, eta, horrez gain, 3.000 euroko sari bana jasoko dute.

Ainhoa Mendiluze Ormaetxeak irabazi du Minaberi itzulpen-beka.

EIZIEk, Iruñeko Udalarekin lankidetzan, Minaberi bekaren lehen edizioa antolatu du aurtengo udaberrian, nazioarteko gazte literaturako lan esanguratsu bat euskaratzeko. Marijane Minaberi idazle eta itzultzaile baxenabartarraren omenez hartu du "Minaberi" izena beka. Hogeitabost gazte aurkeztu dira bekaren deialdira, eta, guztien lanak aztertutik, epaimahaiak erabaki du Ainhoa Mendiluzeri esleitzeko beka, liburu osorik itzultzeko. Laurie Halse Anderson idazlearen 'Speak' liburu euskaratuko du Mendiluzek, Aiora Jaka itzultzailea izanen du mentore itzulpen-prozesuan laguntzeko, eta Txalaparta argitaletxeak kaleratuko du.

Palestina gertatzen ari denak Ekialde Hurbileko mugak aspaldidanik gainditu eta mundu mailako erreakzioak piztu ditu. Euskal Herrian erantzuna karriketarik eman zen zenbait manifestazio eta kontzentrazioren

medio, baina kaleko mugimendutik haratago, Palestinako auzia liburuetan ere dago eta euskaraz irakur daiteke, egunkariaren nazioarteko orrietatik at. Izan ere, Palestinako literatura euskaraz ere bada.

YASMINE KHRIS MAANSRI

PALESTINA

euskarazko gaia

Uzta berriak

Azken hilabeteotan, Iruñeko eta Euskal Herriko liburu-dendetako apalategietan Sortaldeko herrialdeetako liburuak ugalduta egin dira. Argitalpen zaharragoen itzulpenen ondoan, lan berriak euskaratu egin dituzte formatu ia guzietan. Eleberriei dagokionez, Adania Xibliren 'Detaile xume bat' (Igela) 2017ko nobela euskarara ekarri berri du Aitor Blanco Leoz itzultzaileak. Istorioa artikulatzen da gertakari zehatz baten inguruan, ongi erakutsiz palestinarren kontrako okupazioa ziklikoa eta indarkerian oinarritutakoa. Blancoren arabera, "Xibliren idazkera sinplea da, tonu laua du, eta, aldi berean, baditu errepikapenak, hipnotiko izateraino; baina uste dut horrek ez duela irakurketa batera aspergarria egiten". Adania Xibli idazle palestinarra LiBeraturpreis literatur saria jasotzekoa zen Frankfurteko Azokan, baina bertan behera utzi zuten, haren eleberria "antisemita" zelakoan.

Fikziotik kanpo, bi saiakerak ilustratzen dute Palestinako okupazioa eta gerraren izaera koloniala: Rashid Khalidiren 'Ehun urteko gerra Palestinaren aurka' (Udako Euskal Unibertsitatea), Iñaki Alegría Loinak itzulita, eta Perry Andersonen 'Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz' (Katakarak).

Poesiari dagokionez, Mohammed El-Kurd idazle eta kazetariaren 'Rifqa' (Katakarak) liburua euskaratu du Eider Beobidek. Bertsio elebidunean (ingelesez-euskaraz), 40 inguru poema plazaratu ditu, Jerusalemgo El-Kurden hizkuntza gordin eta zuzena islatuz. "Palestinako poesia Palestinako historia izan da azken mendeetan. Poeta mezularia izan da, talde baten heroia eta memoria ordezkatzeko duen pertsona" dio Beobidek. Palestinaren aurpegi gaztea eta garaikidea da El-Kurd, eta amona Rifqa da liburuko protagonista handienetakoa. Azkenik, argitalpen andana osatzeko, Astiberri argitaletxeak Joe Sacco Maltako komikigilearen 'Palestina' ekarri du. Zuri-beltzeko albumak kazetaritza-lan handia da, 1990eko hamarkadaren hasieran Saccok argitaratu duen obra politiko eta historikoa, Julen Gabiriak itzulita.

DATORREN ARGITALPENA

Udazkenean Eyal Weizman-en 'Forensic Architecture' ekarriko du Katakarak, arkitektura eta estrategia militar sionista azaltzen duen lan interesgarria.

Eider Beobidek egindako "Rifqa" liburuaren errezitaldi musikatua EHZ festibalean, 2024ko uztailean.



Euskarara beharrez

Hedoi Etxarte Katakarako editorearen arabera, hasieratik hasi zen erantzuna irudikatzen, ahal zen moduan. "Urriaren 8an jabetu ginen: auzi larri bat dago duela zazpi hamarkadatik. Jendeak badu atxikimendua baina beste hamaika gairekin bezala, euskaraz ia ez da deus". Argitaletxeak ekarri dituen liburuei buruz: "Asteak eman genituen pentsatzen. Liburu onenak -Idith Zertal, Shlomo Sand, Ilan Pappé- mardulegiak ziren, baina Perry Anderson marxistarekin topo egin genuen eta azkar eta apart, New Left Review mitikoko bi artikulatu ekarri zituzten itzultzaileak". Etxartek sinisten du unibertsalismoa zeharkatu behar duela euskaraz, eta alderantziz ere bai, baita Palestinako kausan ere: "Edozein gai da euskal gaia ala euskara ez da izango. Euskaldunek hamaika kezka daukate eta ia denak gazteleraz, frantsesez ala ingelesez asetzen eta lantzen dituzte. Palestina eta sionismoa euskal gaia da. Eta marxismoa eta trans auzia. Klima aldaketa eta perretxikoak. Kartzela eta Errusiako literatura. Hezkuntza eta ingelesezko poesia. Arkitektura eta Italiako 1970etako borroka."

Aprende hablando y disfruta practicando ¿cómo?

ika te lo explica.
Hizkuntza ulertuz,
euskara ikasi.



EUSKALDUNIKATE
IKA.EUS

IRUÑEA 948 22 22 46
BARAÑAIN 948 18 83 25
ATARRABIA 948 33 26 60

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

PLAZARA ATERA BERRIA • NOVEDADES DE LIBROS Y DISCOS**LIBURUAK / LIBROS**
Euskal Herria heterodoxiatik
Xabier Zabaltza Perez-Nievas
Betagarri Liburuak

Xabier Zabaltza Perez-Nievas historialari, idazle eta EHUko irakasleak 30 urtetan argitara emandako zenbait artikuluko bildu ditu liburu honetan. Ideia nagusien artean azpimarratzen du euskararen eta herriaren etorkizuna hizkuntzaren erabilera eta euskal kulturarekin lotu behar direla nagusiki. "Batzuk politikaren bidez saiatu dira Euskal Herria eraikitzen. Beste batzuk, bortizkeriaren bidez. Aro berri honetan, ezinbestean, euskararen eta euskal kulturaren bidez eraiki behar da. Ez Espainia, Frantzia eta Europaren kontra, haien barnean baizik. Ez lurraldetasunetik, errealitate instituzionala eta herritarren aukera nazional guztiakiko begirunetik baizik. Ortodoxia guztiak huts egin eta gero, heterodoxiaren garaia da."


Monogamoak
Iñigo Astiz Martinez
Susa

Opari osagabe baten oroitzapena, hildakoen ilarak eta hiltzaileenak, Lizasoko komuna eta haren itzalean hartutako bainua, biribilguneen utopikoak, gazte bat pintadak garbitzen, andre bat katu baten marruen eta amaren azken egunen artean, sasoz kanpoko norbaiten itzulera, infinitura multiplikaturako tximinoak,

balizko pailazo bat, txanpon-makinen zarata eta hondoko konplizitateak, une batez den-dena geratu uste izan zuen isiltasun bat. Giroz, garaiz eta tonuz, eremu zabal bat bildu du Iñigo Astizek bere lehen narrazio bilduman. Aro bakoitzean jendeak elkarri eusteko botatzen dituen sokez ari da, komunikazioak eta haren faltaz, eraikuntza historiko, politiko, kulturalen alde makurraz zein absurdoaz. Argitasunez eta ironiaz, soiltasunez eta saturazioz, bizidun orenen orekari urratsak datoz kontakizunotan.


Bidaia Iratira.
Bertako emakumeen lorratzak
Kati Leatxe (testuak) eta Estitxu Larrea (ilustrazioak eta diseinua)
Txalaparta

Irati ibaiaren inguruan bisita ditzakegun lekuak ezagutzeko modu berri bat

proposatzen digu lan honek. Agoizko Kati Leatxe, Karekin Kultura enpresaren sortzailea eta Estitxu Larrea ilustratzaile eta diseinatzailea dira egileak.


Eskualde hauetako historia pasarteak eta natur eta kultur ondarea ezagutzera ematea da lanaren muina. Honekin batera bertako musika, zinema, webguneak eta liburuak ere aipatzen dira orrialde hauetan eta QR kodeen bidez haietarako sarbidea aurkitu ahal izanen dugu. Koaderno ibiltari hau INNOVA ekimenaren eta bertako udalen laguntzari esker egin ahal izan da. Egileek iragarri duten bezala, irailean bigarren atala plazaratuko da non hainbat ilustratzaileen lanak ere bilduko diren.

MIGEL ANJEL ASIAIN "OSIO"

Profesor jubilado y miembro de la Asociación Galtzagorri de Literatura Infantil y Juvenil

Cómics sobre memoria histórica

Tras la pausa veraniega, y con ganas antes del comienzo del nuevo curso, vuelvo con la propuesta de dos cómics, dos obras maestras: 'Mo, Behi euskaldun baten memoriak', publicada por Pamiela, y 'Ahazturaren Leizea', de la editorial bilbaína Astiberri. Dos cómics con dos estilos muy diferenciados, pero con un tema común: la guerra civil española y sus consecuencias. El primero de ellos está basado en la novela juvenil homónima de Bernardo Atxaga. Juan



Suárez ha construido un guión sólido, consistente, que permite seguir las aventuras de Mo, una vaca euskaldun, y su periplo por Balantzategi, un caserío perdido en la montaña y un monasterio de monjas situado en Zuberoa. Si la novela de Atxaga tocaba temas de la memoria histórica, de los maquis, de la represión que se dio tanto en la guerra civil, como en los años posteriores, la novela gráfica nos permite seguir los pasos de Mo de una manera visual. Para ello, Pello Valera ha utilizado unos colores vivos y contrastados en algunas páginas y oscuros y mates en otras, realzando el dibujo, casi expresionista, que da así mayor fuerza a la historia. Pocas incursiones ha hecho la editorial Pamiela en el cómic, pero vista la calidad de Mo, cabe pensar que si siguen por este

camino nos van a dar muchas alegrías editoriales.

La segunda obra, 'Ahazturaren Leizea', la dejaré para otra entrega. Solamente diré que es una obra maestra, imprescindible. Dos cómics de gran calidad para jóvenes a partir de 14 años, que nos traen un tema tan importante como es éste de la memoria histórica.

DISKOAK / DISCOS**'Mundu berria'**
Mirari

Iruñeko talde berri honen lehen kanta da hau. Mirari musika proiektu euskalduna da bere osotasunean. Proiektuak batez ere pop musika lantzen du, baina baita rock eta musika latinoak ere. Laster argitaratuko den lehenengo diskoak 8 abesti izanen ditu. Mirari taldeko kideak dira: Urko Milagro da abeslaria eta abestien egilea, Aitor Herbon, Maitane Gamazo, Iker Fernandez, Odei Berrade,

Roberto Monreal "Pope" eta Andoni Goldarazena. Proiektuak Nil Moliner bezalako artisten eragina biltzen du, baita En Tol Sarmiento, La Raiz eta Efecto Pasillo bezalako taldeena ere. Diskoa Estudios Mussikkin grabatu da, produkzio eta soinu teknikari lanetan ibili den Adrian Vallejorekin.

**'Nahif'**
Rosa Palo

'Nahif' diskoa plazaratu du berriki Rosa Palo talde garestarrak, infantilizazioaren inguruan hausnartzen duen disko kontzeptuala. Rosa Palo 2023an jaiotako hard-pop talde nafarra da eta hainbat proiektu musikaletan egondako kideek osatzen dute: Ibai Aldazek, Miguel Ruizek eta Iosu Ardaizek.

Euskara eroso bizitzeko

Vive el euskera
cómodamente

æek
euskara praktikoa

EUSKARA - IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Mintzapraktika



Barnetegiak



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Online



aizul aldizkaria



Normalizazio-planak
Planes de normalización



Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones



DIRULAGUNTZAK
SUBVENCIONES

Eman izena
Matricúlate

nafarroa@æek.eus · 948 22 02 13



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra